

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko urtarrilaren 14a

**Egunkaria**

Gehigarri honetan



**Lesaka** • Herriaren historia bildu dute liburu batean, 1400 eta 1830 bitartekoa  
**Auzotegi** • Txantreako bizitzaren ispilu da auzokideen esku dagoen lokala.

## ‘Romano urteak’



• EGUNKARIA

## utzitakoa

Romano urtea pasa da. Julian Romano Lizarrako gaitaria 1899ko abenduaren 8an zendu zen, eta hori zela-eta haren mendeurrena oroitu zuten 1999an. Lizarrako Udaleko batzorde ofiziala batetik eta gaitarien elkarteak bestetik, biek izan dute ekitaldiz betetako urtebetea. Bien helburua Romano ezagutaraztea zen eta, nola edo hala, lortu dute. Liburu bat eta disko konpaktu bikoitza dira urte horrek utzitako arrastoak.





## Lesaka ●

## Bortz mende liburuan

1400 eta 1830 bitarteko Lesakaren historia bildu du Bidasoa Ikerketa Zentroak

**Bidasoa Ikerketa Zentroak bere koadernoen bigarren zenbakia argitaratu berri du. Lehendabizikoan, Berako historia biltzen zen, eta oraingoan, berriz, Lesakako historia bildu dute, 1400 eta 1830 artekoa.**



Tokiko historia ikertzeko helburua du Bidasoa Ikerketa Zentroaren argitalpen berriak.

● EGUNKARIA

**T**OKIKO HISTORIA IKERTZEKO eta arakatzeko ahaleginean, Bidasoa Ikerketa Zentroak bigarren koadernoan karrikaratu du. Erregimen zaharreko Lesaka biltzen da liburukian, hainbat artikuluren bidez. Ale horretan, ahalegin berezia egin dute dokumentazioa berreskuratzen, horretarako garatu duten programa bati eutsiz. Horren bidez, "herrietako iraganeko bizimodu politikoa- ren, ekonomikoaren eta sozialaren eite edo gertaerekin loturiko eta argitaragabeko dokumentazioa berreskuratzea nahia" azaldu dute argitaratzaileek. Bidasoa

Ikerketa Zentroko lau kidek prestatu dituzte artikulua: Fernando Mikelarenak, Juainas Paulek, Andoni Esparzak eta Jose Miguel Ariztegik. Taldekideek Ariz-

tegiren lana goraiatu dute bereziki. "Prestakuntza akademiko berezirik gabe, betidanik izan du interesa bere herriaren historian, eta hori ikertu izan du aisial-

dian. Haren lana irakurterraza eta hagitx grafiko da, eta pozgarria da horrelako eredu bat izatea, jendea ere errazago erakartzeko", azaldu diote NAFARKARIAri

Bidasoa Ikerketa Zentroko kideek.

Lehendabiziko kapitulu- an, Fernando Mikelarenak Udalerri, Herrikoetxe eta Tokiko Boterea Lesakan Erregimen Zaharraren garaian gaia landu du. Bi atal ditu artikulua: lehenean, Erregimen Zaharrean Nafarroako mendialdeko udalerri, herriko etxe eta tokiko boterea azaltzen da, eta bigarrenean, berriz, Lesakako udalerrikoak agertzen dira. Andoni Esparzak, berriz, Bortzietako blasola edo armaria izan du aztergai.

**Bestentzat ere lekua**


Juainas Paulek aski dokumentu interesgarria bildu du *Bestak, herri baten historia* lanean. Garai hartan solstizioek zuten indarririk gehien besten egitarauan, eta, horrekin batera, sanjoanen eta sanferminen arteko eztabaida azaltzen digu. Hurrengo atalean, egile horrek berak Lesakako besten egitarauko feriak eta azokak aztertu ditu. Bidasoa Ikerketa Zentroko kideek "Lesakako artiboaren aberastasuna" azpimarratu dute. Baina, hala ere, baditu hutsuneak ere, eta horietatik aztertu dituzte bertze artikulua batean Jose Miguel Ariztegik eta Juainas Paulek. Horri segida emanez, liburua ixteko, *Lesakako antzinako etxeak* lana ere prestatu du Jose Miguel Ariztegik. Artikulu laburra izan arren, ederki ilustratua dago argazki, koadro eta planekin.

Liburua argitaratzeko Lesakako Udalaren, Vianako Printzea erakundearen eta Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntza jaso du Bidasoa Ikerketa Zentroak.

→ Jon Abril

## bi hormetara

JOSETXO AZKONA



**M**iguel Pikilio III.a, hitza hartuz, ozen hasi zen mintzatzen Parlamentuaren Lur Azpiko Egoitza Nagusian: «Gure mundua nola dagoen ikusita (argitu dezagun 2366. urtean gaudela), badago esaterik zeharo kaka bat eginda ikusten dudala gure planeta. Australiak -beste leku geografiko askorekin gertatu den bezala- bere lurraldeen bi heren baino gehiago galdurik dauka itsasoaren faborez; Alaska, aldiz, mapatik arras desagertu da azken asteburu honetan; Amazonia, finean, lur zekenez osatutako basagorpu bat baino ez da.

Enfin... Txinako Estatu Batuetako agintariak Fox Infemex- ez jakinarazi didatenez, 150 milioi gizamoide bizi dira jadanik Ilargian kokaturiko hiri espazialean; halamoduz bizi ere, dena den.

## Aitzina begira

Azkenik, eta ezbehar zerrendarekin oraindik jarraituz, kontaezinezko gaitzek eta hondamendiek eragozten digute bizimodua planeta honetan: PS3-Univers Virusak, Info-Busti Crepes Euri Transazioak, Didac Zorri Erraldioen Izurriteak, Katxunba izeneko meteoritoak harrotutako hauts kutsakorrak, eta bestek. Zoritxar tzar halakoak!

Gure herrialde forodunari dagokionez, eta ideia zehatzago bat edukitze aldera, derradan orain gutxi arte gure Pirinioak zeudene-ko tokian Sierra Nevadako mendiak kokatzen direla orain, Batzorde Foral Hiperberezia eratu dugularik Binbaleta non ote den ikertu dezan.

Guztiarekin ere, erranen dizuet, hau delarik nire hitz parrastaldiaren mezurik itzelena, gure

navarrico barraskilo motaren hiru azken aleek bizirik jarraitzen dutela Nafarroako Piztimoideen Museoan. Dakizuenez, hiru navarrico horiek ebatsi, lapurtu, ostu zizkiguten Giputz Gizamoide Saldo Erradikalek Izaga Eremu Megababestuan izandako azken gerratean.

Nafarmoide Parlamentari Jaun-Andreak!, egoera kontrolpean daukat arras. Nafar Herri- moidekook garaile atera gara berriro gure patxaran supergenikoa bezain zaharra den gatazka historiko honetatik. Aranamoideetzaleak ez dira pasako! Ez, horixe!

Eta adierazpen instituzional hau irakurri ondoren, onar dezagun orain, Ezezko Borobila- ren Batzorde Parlamentarioaren erabakia Eus- kal Herri- moide 7ak bat deritzan irratia 69. aldiz eskatu digun lizentziari buruz...»



# Leitza • Aurten ere, puntako filmak

Leitzako zinema azken 10 urte hauetan boluntarioen esku dago

1991. urteaz geroztik, Leitzako zinemak herriko boluntarioen lanari esker darrai martxan. Azkenekoan lau talde osatu dira, eta horri esker, guztien artean lana banatzeko aukera izan dute.



Leitzako zinemaz arduratzen diren lau boluntario.  
● JOXE LACALLE

ASTEBURUETAN BI EMANALDI izaten dira, bata ostiral gauean, 22:30etatik aurrera, eta bestea larunbat arratsaldetan, 19:30etatik aurrera. Orain arte, larunbateko saioa 22:30etan izaten zen, baina egokiago ikusi dute aldatzea, jende gehiago joango delakoa.

Jendea zinemara erakartzeko hamaika komeria dituzte; batzuetan, filmak aukeratzeko, eta beste batzuetan, diru kontuak ere azaltzen dira tartean. Baina Leitza, jendeak asteburuetan zinemara joateko ohitura handia zuen, eta horregatik, jarraitzen du gaur egun ere. Azken urteetan zinemara jende gutxiago joaten ze-

la ikusita, zerbait egin behar zela pentsatu zuten boluntarioek. Askotan zinemara lagun gutxi joaten direla eta, aurtengo taldeen erronka zaletasuna piztea eta finkatzea da; horretarako, segida eman nahi diete daramaten martxari, aurtengo emaitzak, oraingoz, franko onak direlako eta orain arte eskaini ahal izan dituzten filmak onak izan direlako.

Azkeneko asteburuan Pedro Almodovarren *Todo sobre mi madre* filma ikusi ahal izan zuten leitzarrek, eta ehun lagun baino gehiago izan ziren bi saioetan. Jende gehien *La vida es bella* filmak bildu zuten, 140 lagun. Datu horiek ez dira esanguratsuak zenbait kasutan, baina kontuan har-

tu behar da sarrerak 500 pezeta balio duela. Nafarroako Gobernutik urtero diru-laguntza bat jasotzen zen zorrei aurre egiteko. Orain arte galearen erdia estaltzen zuen diru-laguntza horrek, baina badirudi hemendik aurrera Leitzako Udalak egin beharko diola aurre zorraren gehiengoari. Bi erakundeak arduratzen ziren zinemako zuloa estaltzeaz, baina kontuan izanik aurten 150.000 pezetako diru-laguntza jaso dutela, eta zorra, berriz, 500.000 pezetakoa dela, Leitzako Herriko Etxeak jarri beharko du gehiena.

Zinemari bizirik eutsi nahi zaio, eta arazo horiek ahaztu gabe, ilusio handia dute boluntarioek maiatza bitarteko

programazioa prestatzen, nahiz eta jakin hirietako areto handiek lehentasuna dutela filmak eskuratzeko garaian. Gainera, herrialde ezberdinetako zuzendarien lanak ekarri nahi izaten dituzte, eta ez EEBBekoak, beti komertzialenak haiek suertatzen diren arren. Baina hori ere nahiko zaila izaten da, produktorak berak hartzen dituztelako filma batzuk jartzera. Oscar sariak edo zinemaldietan parte hartzen dutenak lortzea oso zaila da. Zailtasun horiez gain, saio bakoitzeko lana dago: boluntarioek sei bat ordu pasatu behar izaten dituzte, muntatzen, filmak eskaintzen eta hurrengo egunerako prestatzen edo jasotzen.

Lan hori guztia askotan ez dela behar bezala kontuan hartzen adierazi dute egiten dutenek. Orain, jendearen erantzuna ere izatea espero dute egun zinemaz arduratzen diren hamalau lagunek. Hori bai, trukean, kartelera bikain bat eskainiz. Asteburu honetan *El guerrero numero trece* pantailaratuko dute, *Estacion central de Brasil* hil honen azkeneko asteburuan ikusiko da, eta hurrengoan, ilbeltzaren 22 eta 23koan atsedendia izanen dute, inauteriak direla eta.

→ Eli Belauntzarán

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Herrikoa elkarte eta txoriak

Herrikoak berriki egindako biltzar nagusia aztertu du **Herria** astekariak bere azken zenbakian: «Uztaritzeko Lapurdi Salan egin da Herrikoaren 1999ko Biltzar Nagusia. 1980an, Patxi Noblia lehendakari zuela abiatu zen Herrikoa sozietatea, diru biltzen lantegiak laguntzeko lanpostu sortzen Ipan Euskal Herriari. 2000 urteko ekainean 20 urte beteiko ditu, eta sekulan baino karri handiagorekin ari da lanean. (Artetik erraiteko Herrikoaren etsenplu eta laguntzaz bada gisa bereko sozietate bat muntatua Korsikan: Femu Qui)».

«Jean Thicoipe, Copelectronic-en zuzendaria du lehendakari azken 9 urte

hauetan. Biltzar Nagusia, berak eraman du, ondoan zituela J. Bergara kondu emailea, Peio Bellan (Hemen elkartekoa) eta Hervé Lanouguère, aurtent sartua dena Herrikoaren komertzial bezala. 98-99 (uztailetik uztaile) urtea, urte ona izan da presidentak esplikatu duen bezala. 13 lantegitan egin dituzte parte hartzeak Herrikoak: 10 enpresa lagundu ditu sortzen, 1 berrantolatzen eta azkartzen eta 2 trasmisio egiten».

Bestalde, Burlatako **Axular** aldizkaria hegaztiei buruz aritu da neguko zenbakian: «Ipar Europatik datozen txoriek euren txitak, oso epe laburrean, bertan

hazitu ondoren, udazkeneko gau edo egunetan, eguzkia edo ilargiaren bidez Iberiar penintsulako hego-ekialdea eta Afrikako iparraldea bilatzen dute, bide horretan Burlata zeharkatzen dutelarik, negu epelago bat bilatuz. Bide hori egiteko egun asko behar dituzte, eta egunero, goizeko hegaldi altu eta luzeak egin ondoren, jatera, edatera edo lo egitera joan behar izaten duten. Orduan, txoriak Burlatan ikusteko aukera izaten dugu, bai eta eguraldi txarra dagoenean ere, haizea edo euria ari duenean, eguraldia baretu bitartean, egun batzuk bertan pasatzen baitituzte».

## Testaccio

Bada Erromaren erdian, Tiber ibaiaren ondo-ondoan, menditxo bitxi bat Testaccio izena duena. Mendi hori ez da benebenetako mendi bat eta horretan datza bere berezitasuna: artifiziala da. Gizasemeek eraikitako mendi bat da eta hirurehun urte behar izan zituzten kilometro bateko perimetroa eta berrogeita bost metroko altuera horiek osatzeko. Antzina hementxe eraiki zuten erromatarrek portu handi bat, eta buztinezko anforetan olioak garraiatzen zuten ontziak hementxe zuten aparkalekua. Aspaldiko garai haietan ez zegoen Testaccio mendirik zelai bat baizik, zabortegi bezala erabiltzen zen zelaia. Hasiera batean piramide baten egiturarekin antolatuta omen zegoen buztinezko anforen zabortegi hau. Gero, zaborren pilaketa zela eta, alde batetik zein bestetik desitxuratu egin zen. Denborak eta eurik are gehiago desitxuratu dute eta gaur egun forma borobilduak agertzen ditu.

Arkeologoek mendi maitea da noski. Haiek mendiaren magaletan tunelak egiten dituzte mendixkaren bihotzeraino. Ebaketa horietan denboran atzera egiten dute. Barruan kristo ondorengo lehendabiziko mendean egindako anforak pilatzen dira. Beraien sabel lodietan izkiriaturiko markak oraindik ere irakurri daitezke: anfora non egin den, nork garraitua, eta datu fiskalak ere hor daude, arkeologoek zain. Milioika anfora daude.

Hirurehun urtetako zabor industriala. Bainan dena da buztina. Benebenetako lurrarekin egindako mendi "artifiziala". Orain gauza bat aitortu behar dizuet. Ni ere mendi artifizial baten eraikinean parte hartzen ari naiz. Hementxe daukat, pasiloan zain, nire eguneroko ekarpena: zarama poltsa. Kristoren ilusioa egiten dit, ongi ulertuko duzue, mendi-eraikitze lan hauetan parte hartzea. Egunero-egunero bi poltsa edo jaitzen ditut. Jakin badakit etorkizuneko arkeologoek gure plastikozko mendiaren bihotzetan ebaketa egingo dutela. Gupidatsuk izatea espero dut. Agian nire poltsara ailegatuko dira! Nik erabilitako plastikozko ikertuko dituzte! Plastikozkoan idatzitako datuak argigarri izango zaizkie. Gupidazko letretan Taiwan, Consumer, Vino de Olite, Gillette, Playboy idatziko dute. ●



## Rosa Villafranca Gaitaria

# «Gaitak goia jo zuen Romanorekin»

Rosa Villafranca Belzunegi Zarakastelun jaio zen, 1965an, eta bertako gaitari taldeko kidea. Filologoa da, eta tronboia jotzen du.

Zizurko ikastolako jantokian lan egin du, eta irakasle moduan hainbat ordezkapen egin ditu han eta hemen. Romanoren ibilbidearekin eta gaitarekin liluraturik dago, eta ikasitakoa hainbat emakume gaitariri helarazi nahi dio.

**J**ULIAN ROMANOREN Mendeurrenerako Lizarrako Udaleko Batzorde Ofizialeko idazkaria izan da, eta *Estella y la música. Siglo XIX. Julian Romano Ugarte* liburua idatzi du.

■ **Zer balorazio egin duzu urteari buruz?**

Urte arrakastatsua izan da benetan. Markatu genituen helburu guziren %90 bete dira. Gure nahia zen Lizarrak musika bizitzeko urtarillaren 1etik abenduaren 8a arte, eta horrela izan da. Saiatu gara batez ere Lizarran Romano ezagutarazten. Denek bada-kite kontserbatorioak Romano izena duela, baina ez daki te Romano gaitaria baino zer-bait gehiago zela. Nik uste dut lortu dugula. Balantzea, beraz, oso ona da. Ekitaldietan aniztasuna, kalitatea eta jendearen parte-hartzea izan da. Lizarran musika eta dantzarekin zerikusirik duten kultura talde ia guziek hartu dute parte urte honetan. Ekitaldi guziren artean, nabarmenduko nuke Julian Romano Ugarte I. Musika Konposizio Saria. Oso inportantea izan da, nahiz eta ez zen kalitate handirik izan.

■ **Urte bukatzeko zure liburua aurkeztu zenuten.**

Bai, bi urte eta erdiko lana izan da. Helburua zen Romanoren bizitza eta lana goitik behera aztertzea, baina ez hori bakarrik: XIX. mendeko Lizarrari begiratu diogu.

Mende hori fantastikoa da, deskubritzea merezi du. Politika, gizartea, ekonomia eta kultura aztertu ditut. Eta koadro horren barnean sarturik dago Julian Romano.

■ **Nondik sortu zen liburua egiteko ideia?**

Niregandik sortu zen. Nire bigarren liburua da. Lehen Otsagiko dantzen ingurukoa zen. Salvador Martinezek gaitaren munduan sartu

«Romano artista izan zen XIX. mendean baztertzeko musika tresna batekin. Miseria ekonomikoa, soziala eta intelektuala gainditu eta jenioa izan zen, berritzailea eta abangoardista»

minduen eta, horren bidez, folkloreak eta tradizioan. Gaitaria naiz eta ikertzea gustatzen zait. Eta zein da pertsonarik garrantzitsuena gaitaren inguruan? Julian Romano Ugarte, ez bairrik gabe.

■ **Bi urte eta erdi berarekin egon ostein, nola deskribatuko zenuke Julian Romano?**

Romanok Lizarran XIX.


mende miserablean edozein gizonek zuen bizimodua izan zuen. Miseria ekonomikoa, soziala eta intelektuala gainditu zituen eta jenioa izan zen, berritzailea eta abangoardista. Artista izan zen mende horretan bazter uzten zen musika tresna batekin. Berak musika bandako instrumentu bilakatu zuen. Gaitak goia jo zuen harekin eta haren semearekin. Gizon horren semearen bidez sartu zen gaita Euskal Herriko beste lurraldeetan. Orain, txistuaren ondoren, haizeko instrumentu hedatuena da gaita.

■ **Liburuan, Romanoren musika aztertu du Jaume Ayals kataluniarrak, eta lizarratarra eta Johann Strauss parekatu ditu.**

Haien lanek ez dute zerikusirik, noski, baina antzeko ezaugarriak dituzte. Abangoardistak ziren, langile nekazinarak. Kalitatezko musika egin zuten biek. Kontua da Julian Romano ez dugula entzun. Haren lana ez da ezagutzen. Bada garaia Romano dagokion lekuan jartzeko, haren urratsai segitzeko.

■ **Zergatik daude hain emakume gaitari gutxi?**

Gaitaren mundua itxia izan delako. Normalean, hainbeste maite ditugun gauza horiek oso itxiak dira. Euskal Herri osoko dantzetan ikus daiteke hori. Eta nafar herria oso kontserbadorea da, onerako zein txarrerako. Baina aldatuz doa.



JOXE LACALLE

## «'Romano urtearen' balantzea»

Nik bi gaita eskola ditut, bata Beriainen eta bestea Zaraitzun. Beriainen zortzi emakume gaitari ditut eta Zaraitzun, berriz, hamasei. Egunen batean, Otsagiko dantzariak hiru emakume gaitariren soinuekin dantzatuko dira.

■ **Zein da gaitaren egungo egoera?**

Eskolei dagokionez, gorakada. Badaude eskolak gaita duintzen dutenak eta gaitariak hiru hilabetetan sortzen ez dituztenak. Hala ere, asko estudiatu dutenek batzuen uztar txarra jasotzen dute oraindik. Mailari dagokionez, nik uste dut Julian Romano orain biziko balitz eta Lizarrako Gaitariak entzuten balitu erranen lukeela hau dela nahi zuena.


→ Asier Azpilikueta

Julian Romano gaitaria hil zeneko mendeurrenoko urtea pasa da, eta bi gaitarik, Javier Perez de Obanos eta Rosa Villafranca, urte horren balantzea egin digute. Perez de Obanos mendeurrenako gogoratzeko hainbat gaitarik sortutako elkarteak kidea da, eta Villafranca, berriz, Lizarrako Udaleko batzorde ofizialeko idazkaria da. Lehenengoa Julian Romanoren musikan inspiraturiko disko baten koordinatzailea izan da, eta bigarrenak liburua idatzi du gaitari lizarratarren inguruan. Bien helburua Romano ezagutaraztea zen eta nola edo hala lortu dutela uste dute.

## Jabier Perez de Obanos Gaitaria

# «Romano eta haren lana ezagunagoak dira orain»

Jabier Perez de Obanos Oiarbide tuterarra Tuterako Gaiteroetako kidea da, baita Numidia taldekoa ere, eta Erriberako hainbat herritan irakasten du gaita jotzeko modua. Julian Romanoren Mendeurrenaren Ospakizunerako Elkarteak ateratu duen disko konpaktu bikoitzaren koordinatzailea izan da.



NEKANE OTERMIN

**P**EREZ DE OBANOS ELKARTEA ez du instituzioen laguntza handirik jaso, baina argitaraturiko diskoan berrehun musikari inguruk hartu dute parte.

■ **Zuen elkarteak ekitaldi trinkoko gitaraua prestatu asmo zuen Romanoren urte honetarako. Zer derituzue denbora honetan eginiko lanari?**

Oso ona izan dela, nahiz onartu behar den programaturiko ekitaldi guzti-guztiak ez direla egin, besteak beste laguntza instituzional handirik izan ez delako. Edonola ere, eginkoaren balorazioa arras ona da, eta pasa den urtearen ostein Romano eta haren lana ezagunagoak direla uste dugu.

■ **Zeintzuk izan dira urte honetan egin dituzuen ekitaldiak?**

Lau kontzertu didaktiko eskaini ditugu Lizarrako, Baigorriko, Iruñeko eta Tuterako hainbat ikastetxetan, Romanoren ekarpena

haurren artean jakinarazteko. Bestalde, Romanoren erakusketari bati eraman dugu Nafarroako merindadeetako sei hiriburuetara, Gaitarien Egoitzetan ikusgai izan dena. Oihartzun zabala izan du XIX. mendeko bukaerako dantzeekin eginiko ikuskizunak ere. Hartan, Romanoren errepertorioan horrenbeste errepikatzen diren forma koreografikoak berreskuratzea proposatu genuen, garako dantzaldiak nolakoak zitezkeen idurikatzeke asmoz.

■ **Eta Romanoren Urteari amaiera emateko, duela bi aste Julian Romano 100 urte CD bikoitza aurkeztu zenuten.**

Geure aburuz, hauxe da urte osoaren lana laburbiltzen duen proiektua, eta, horregatik, garrantzitsuena. CDa grabatzeko berrehundik gora musikari elkartu gara; Euskal Herri osoko gaitariak eta beste arlotan diharduten musikariak, bada, gaitaren ohiko mugetatik haraindi bagoaz lan honekin. Lehenbiko diskoa klasikoagotzat

jo dezakegu, gaita ohiko formazioa nagusi delarik; alabaina, badira, honetan ere, bestelako nahasketak arras interesgarriak direnak: esaterako, Bizkaiko Gaitariek

«Etorkizunerako aipatu izan da gaitaren sartzeko kontserbatorioetan, baina, nire ustez, instrumentua bera egokitu eta hobetu behar da hori baino lehenago»

eta Aida Soka Hirukoteak jotzen duten 9-10. Sonata. Bigarren diskoan nabarmenagoak dira esperimentazio horiek, eta hortxe ditugu Numidia taldeak eta Tuterako Gaitariek jotzen duten *Evocación*, edo Bilboko Gai-

tariek eta Kepa Junkerak eginiko *Lizarrako bidean*. CD hau, Romanoren ekarpena goratzeko ez ezik, baliagarria izan da gaitariaren balioa sendotzeko ere, bai herri musikan betetzen duen lanarengatik, bai beste arloko izen handiko musikariek egin dezakeen lanarengatik.

■ **Nola ikusten duzu gaitaren egungo egoera eta etorkizuna?**

Argi dago azken 20 urte hauetan gaitariaren kopurua izugarri handitu dela, eta badakigu gaita ez dela desgertuko, Romanoren ondoko garai zailenetan uste izan zen bezala. Alabaina, kantitatearen gorakadaren ondoren, egungo gaitari guztien kalitatea ez da horren nabarmena gertatzen. Alde horretatik, lan handia dugu egiteke. Edonola ere, ezin da ukatu egungo gaitariaren artean maila ikaragarria dutenak badirela, baina gutxi dira gaita jotzetik bakarrik eta ongi bizi

→ Joxemiel Bidador



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Julian Romano, Lizarrako musikalaria

Berriki ahitu da Romano hil zeneko mendeurrena ospatzeko ekitaldi andana; liburuak, artikuluak, CDak, kontzertuak, dantzaldiak, hitzaldiak, erakusketak... Denetariko ekintzak izan dira baliagarriak Lizarrako musikari haundi honen izena gogora ekartzeko.



Romano deiturak Tuteran ditu erroak, nondik XVIII. mendean Zarrakaztelu eta Alesbesera eta XIX. mendean Zirauki eta Lizarrara heldu zen. Julian Maria Romano Ugarte 1831.eko uztailaren 18an jaio zen, Lizarran. Aita Ziraukiko artile moztaila zen, Juliani berebiziko lanbidea eman ziona, eta ama, berriz, Arakilgo Hiriberriko alaba zen, Ugarte Garaikoe txea, eta hortaz, euskalduna, nahiz Julianen mintzoen artean euskara zegoen esateko pisuzko arrazoirik ez dugun. Etxeko egoera ekonomiko kaskarra zertxobait arintzearen, Julian soldaduskara igorri zuen aitak 200 errealengatik. Etxera itzultitakoan, auzokidea zuen Mikaela Dorotea Bidaurre Okaritzekin ezkondu zen. Ordukoa, dugu Romano gaitajole aurkezten digun lehenbiziko artxiboko agria, bada, lanbidez espartingilea zen Ziriako Ziaurritzekin gaita jotzen agertu baitzitzaigun 1856.era. Egako hiriko karraketan barrena. Urte batera, Romanoren goratze musikala hasi zen, aitaginarreba hil zelako eta emaztearen anal-arreba txiker guztiak etxean aterbetu behar izan zituen berean. Udalak gaitari aritzeko kontratatu baitzuen, hiriko lau erraldoekin estreinakoz atera zirenekoan alegia.

Alargundu ostean, alarguna ere zen Rosa Elizaga Senosiain oñatiarrarekin ezkondu zen 1870.ean. Urte hartan berean, ordura arte musika lankidea zuen Ziaurritzekin utzi zuen, eta osperik gehien uztatu zuen taldea osatu zuen bere lehenbiziko ikasleak izan ziren Nemesio Bidaurre koinata eta Demetrio semearekin. Romanoren ospea gorantz zihoan neurrian, Lizarratik kanpo hasi zen jotzen, bigarren karlistadaren ostean bereziki. Aipagarria dugu 1878.eko Sanferminetan izan zela, orduko 250 pezetako katxet puztua kobratu zuelarik. Ber urtean Madrilen izan zen, Alfontso XIII.aren eta Maria de las Mercedesen arteko ezkontza ospakizunetan. Ekitaldi hartan

parte hartu izana garrantzi handikoa izan zen Romanoren bizitzan, eta harrez geroztik, artile moztaila lana bazter batera utzirik, musikari moduan bizitzera aurrera eramateko bezainbeste ateratzen hasi zen, bai gaita jotzen, eta bai musika eskolak ematen; ezagun da biolin, akordeoi, bandurria eta gitarra metodoak izkiriatu zituela, eta piano jole ona bazen, 1893.ean udal musika bandaren zuzendari izendatu zutelarik. Gora egite musikalaren tontorrean zegoela zendu zen Julian Romano, mende berrira iritsi gabe, 1899.eko abenduaren 8an hain zuzen.

Romanoren ondotik aipatu Nemesio Bidaurre eta Demetrio aritu ziren bikote. Lehenbizikoa Julian baino lehenago zendu zen, 1892.ean, Santiago Plaza ko bere etxean, txirotasun gorrienean, ahantzirik. Demetriok, berriz, aitaren urratsak jarraitu zituen. Zenbait urte lehentxeago, 1882.ean hain zuzen, Rosa Elizagaren iloba zen Anselmo Gregorio Elizaga Ibañez umezurtza Etxanditik hartu zuten Romanoren etxean, eta huraxe izan zen Demetrio-ren laguna gaita joaldietan harik eta bien artero erabateko haserrealdia 1899.ean jazo zen arte. Ez da dudarik honakoa gaita munduan ohikoa den gauza dugula, lagun mina izatetik etsai sendo izatera aisaki igarotzen ohi baitira gaitariak, agidanean.

Lizarrako ahozko tradizioa izan da gaur egunera arte Romanoren oroitzapena bizirik mantendu izan duena. Arrazoi desberdinengatik, Romanoren ondoko gaitariak ez zuten lortu gaitaren zabalkuntza, eta Lakuntza anaiek 1967.ean

atera zuten gaita ikasbidea agertu arte gainbehera ez zen gelditu. Huraxe ere nabarmena izan da Julian Romanoren lanen iraupenean eta transmisioan. Bizi zela ez zuen deus ere argitaratu, eta hil ostean, berak sortu eta moldatu partitura ugariak bere ondorengoei zuhurtasun haundiegiz gorde izan zuten, sekretu bat bezala, erreperitorio hura gordetzearekin etekin komertzial handiagoa aterako bailuten. Hau dela eta, egun ia ez dago Julianek berak idatzitako partiturarik, bai ordea Demetrio semeak eta Anselmo Elizagak koptatu hainbat orri eta koaderno, nahikoak direnak, ordea, Julian Romano zein tamainatako musikalaria izan zen jakin ahal izateko.


Romano bere garaian bizi zen musikalaria bagenuen, hau da, ez zen lehenaldian geratu eta tradizioetik haratago bere garaian modan zeuden musikak konposatu, moldatu eta interpretatu zituen. Bere erreperitorio zabalari erreparatzen badiogu, aisa ikusiko dugu esan duguna, bada, huraxe osatzen duten musika gehienak Europa osoan arrakasta handiz entzuten eta dantzatzen zirenak baitira: rigodonak, baltseak, polkak, mazurkak, txotisak eta habanerak, tradizioetik heldutako jotak, zortzikoak, arinarinak, txuloak, zezenarenak edota dianak gutxienekoak direlarik. Bestalde, Romano kalitate handiko musikalaria izan zen, eta titulu akademi-

korik ez bazuen ere, kontserbatoriotik pasatzen ziren musikarieren parekoa bazen, eta askotan hobe, eta honetan Verdiri bezala gertatu zitzaion. Horregatik guztiarengatik, bada, Rosa Villafrancaren liburua bukatzen duen ikerketa musikologikoan Jaime Ayats doktoreak ez du enbarazu handirik izan gure Romano Johann Straussen beraren mailan ezartzeko.



etorri ahalean

Patziku Perurena



## Hitzak Larrutzen (III).

**B**este askotan bezala, Fernando Videgainen *Cronica negra medieval* leitu nuenean, ohar-tto ezerez batzuk jaso nituen nere desordenadore madarikatu honetan, eta hementxe daude oraindik. Botoi bateri eman eta akabo! Baina ez. Pentsatzen jarri eta, esan dut, zergatik bota? Hoberen usteko artikulu hura baino entretenigarriago izan ziteke eta, heure irakurle asper horrentzako. Jakina, ez orri, ez urte, ez testuinguru... holakoxea da nere diziplina, ertarokutsukoa, biziari eskerrak:

**Borroeroa:** Gaztelerazko *verdugo* euskal usarioan *borrero* da. Bada, ertaroko eskuizkribu zaharretan honela ageri omen da Nafarroan: "*borreu, berreo, borrel, burrelier, sayon*" eta latinez "*interfector*". Eta maizenean, "*rivaldo, romero, thafur*" eta halako jendaje alderraiak egiten omen zuen *borrero* lana. Orain ere berdintsu, baina, politikari edo funtzionario jator moduan atxaureturik, eta armarik zurienaz gainera.

**Gabineta:** ...*Cuando Marico de Zizur quedó adormecida, Pascala le tapó la boca y su madre la degolló con un "ganiver"*. Euskara osoan eta auzo erdaratan ere arrunt erabilia den hitza. Ikus Orotariko Euskal Hiztegia. Guk Goizuetan *kanibita, sukaldeko kanibita*... esaten genion. Goiko aipuan ikusten den bezala, emakumearen eskuarmarik printzipalea izandu da, gizonezkoak (harakin ez bada) zerri hiltzekoan edo gutxi gehiagotan erabili duena. Deitura moduan ere erabili izan da: Angel Ganivet, Unamunoren adiskide granadarraren iluna lekuko; putzura bota omen zuen bere burua ditxosozko 33 urterekin.

**Ito:** Ertaroen heriotzera kondenatutako asko, uretara botatzen ziren, endemas emakumeak, eta botatzaileari nafar erromantzean "*el que lo yto al agua*" eta ozitanoan "*el que lo gita*" o "*el que lo bota*" esaten omen zaio. Begi bistakoa dute euskarazko *ito* eta *bota* aditze-

kiko tankera. Behar bada, baten batek dotore argitua edukiko du hitzon historia txokoren batean, baina neure ezjakin osoan, *ito* horretan, senez eta belarri hutsez, gerozko "*echó*" adizkiaren oihartzuna sumatzen dut, agian latineko "*iactum*" hartatik edo. Auskalo.

**Harrikatu:** Harrika hiltzen zituzten, adulterioa, estropoa, sodomia, bestialidadea praktikatzen zutenak, baita hilekoarekin larrua jotzen zuena ere, batipat moroa edo judioa kristau batekin gurutzatzean. Honek, neskalaguntzera joandako mutila harrika hartzeko ohitura ez aspaldiko hura dakar gogora; badirudi ertaroko justiziaren aztarnak dituela.

**Pikota:** Euskaraz badugu esanera ezagun bat: "*pikutara joan*", eta ez du deus ikusirik jateko piko bila joatearekin. Gortean eserlekua zuen herri kozkorak, bere justiziaren erakustoki ohi zuen pikota, gero leku askotan dermio gurutze edo bihurtu dena. Lakuntzako plazan hantxe dago oraindik XVI. mendeko pikota dotorea. Pikotara joateak, desondrarik handiena esan nahi zuen: gaizkileak bizirik lotuta, heriotzera zigortutakoen eskuak, burua edo gorpu osoa, hantxe ipintzen omen ziren "*expuestos a la vergüenza de la picota*".

**Igunin:** Donamariako auzoa, Andre Iñigok dioenez. Mendialdeko merinoak 1329an jakin du Xemen Uniz Urdiaingoa eta bost lagun Lazkaotik ateratzekoak direla Iturengo abatetxea erretzeko asmo gaiztoan. Urdiainen bertan harrapatu eta itoa izan da Xemen, eta merinoa Lekunberriko ostatuan dagoela "*Igunin*"-goak etorri zaizkio esanez: "*que non podian bivar con lo suyo en lures casas de furtos et de robos que les fazian los de Oyz et los de Agirre et mas que ninguno Peru soston*".

Kontu ttarrok hola, nago Videgainen ertaroko kronika beltza beren bibliografian sartzea ez luketela batere kalte izanen euskal filologok.

## Ziria

Motxorrosolo

### Molde zaharrak

**A**URREAN DITUGUNEN ADIERAZPENEN GARAI ZAHARRETAKEO garratzasuna dute marka. Ukiezinak izaki nonbait, iraganaren pleguak hedatzen dizkigute. Gurean ere, molde zaharrak dira nagusi. Ikasteko gaitasuna bai, baina ikasi nahi ez. Ingeles lodikotea zuzen zebilen.



## Txantrea •

## Auzotegi, Txantrearen isla

Txantrea auzoan dagoen askotariko bizitza soziala Auzotegin biltzen da

**Auzotegi Txantreako kultur etxea da. Baina ez dago Udalaren menpe, auzoaren beraren menpe baizik, auzoan lan egiten duten kolektiboen menpe. Txantreak gizarte eta kultur bizitza handia du, eta Auzotegi horren guziaren dinamizatzailea da.**



Auzotegi lokalean auzoko talde gehienak biltzen dira. Bertan dute egoitza Txantrean Auzolan aldizkariak eta Txantrea Irratiak. • JOSU SANTESTEBAN

**E**TXARRI-ARANATZ KARRIKAN dago Auzotegi lokala; 70eko urteen hasieran ireki zen lehenbizi, Jesus Palaciosek kontatu duenez. Gero itxita egon zen agintari frankistek behartuta, eta gero berriz ireki zen. Lokala Artzapezpikutzarena zen, eta Txantreako Auzo Elkartearen bidez eskatu zitzaion. Orain lokalaren ardura elkartearen esku dago.

Erakundeak alde batera utzita, auzokide guziendako lokal bat nola antola daitekeen erakus dezake Auzotegiko esperientziak. 1983an Auzotegiko erabiltzaileen koordinadora sortu zen. Auzotegin betidanik doena bat talde izan dira lokala erabiltzen. Kudeaketa, beraz, koordinadorearen esku gelditu zen. Baina duela lau bat urte ikusi zuten hori ez zela nahikoa, eta talde kudeatzailea sortu zuten. Palacios talde horretako kide da. «Taldea horrek zentroa dinamizatzen du», erran du. «Ikastaroak, erakusketak eta lokalean egin beharreko lanak bere esku daude. Erabaki garrantzitsuak kolektibo inplikatuaren koordinadorearen esku daude. Inplikatuak dira Auzotegin aretoren bat erabiltzen dutenak. Beste kolektibo batzuk noizean behin etor-

tzen dira Auzotegira. Horiek erabiltzaileak dira. Eta urtean bi alditan erabiltzaileen batzarrea egiten da, eta egin den guziaz eztabaidatzen da hor».

**Jarduera anitz**

Auzotegin, beraz, Txantreari bizitza ematen dioten taldeak biltzen dira: Jaietako Batzardea, Zutarri, Auzo Elkarte, Txantrea Irratia, Txantreako Zarpantzarra, eta beste hainbat. Eta edozein kultur etxe-

tan egiten den gisara, makina bat jarduera antolatzen da urtean. Erraterako, orain bost ikastaro egiten ari dira Auzotegin (marrazketa, irratia, eskulanak, dantza latinoak eta sukaldaritza), eta ehun bat lagun ari dira horietan. Bestalde, erakusketen denboraldia heldu den astelehenean hasiko da berriz ere. Maiatza arte bi asteko erakusketak dituzte programaturik.

«Iaz hamazortzi erakusketa

egin ziren, inoren diru-laguntzarik jaso gabe», dio Jesussek. «Hamar bat ikastaro ere egin ziren. Horietarako Udalak ematen du diru-laguntza, baina ez da nahikoa. Lokalaren gastuak taldeek ordaintzen dituzte kuota baten bidez. Baina hori ere ez da nahikoa, eta falta dena ateratzen dugu gaupasak eta zozketak eginez. Mendi Astea, Ekologiaren Astea, Aste Kulturala eta horiek guziaz Auzotegin bertan egiten dira,

auzoan ez baitago horretarako lokal egokiagorik. Auzotegi Txantreako bizitza sozialaren isla da nolabait».

Auzotegi 18:30etatik 21:00etara dago irekirik. Inongo kolektibotakoa ez den auzokide batek lokala erabili nahi badu, nahikoa du idazkariarekin hitz egitea, eguna eta ordua eskatzea eta alokairu ttiki bat ordaintzea.

→ Asier Azpilikueta

●●●  
**Txantrea  
Irratia, 97.8an**

Auzotegin Txantrean Auzolan aldizkaria egiten dute, eta Txantrea Irratiak ere bertatik emititzen du. «Zazpi urte daramatzagu», adierazi du Joseba Monreal irratiko kideak. «Beti ez da emititzen aritu, gorabeherak izan ditu, eta orain martxa hartu dugu berriz ere. Txantrea Irratia irratia librea da, edo, hobeto esanda, irratia komunitarioa da, auzoak auzorako egina».

Orain 30 bat pertsona daude irratia inguruan, eta eguneko 24 orduetan emititzen dute, Eguzki Irratiarekin konektatzen dutelako. Txantrea Irratiko programazioa astelehenean ostiralera da, eta eguneko ordu eta erdi emititzen dute.

Txantrea Irratia ez da irratia libre normala. Bertan programazioaren bat egin nahi duenak lehenbizi hilabete eta erdiko irratia ikastaro bat egin behar du. Ikastaroa teorikoa eta praktikoa da, eta bertan ematen dituzte irratia egiteko oinarriko ezaguerak. «Hori da irratitik gehien baloratzen dudana», erran du Josebak, «entzuleei errespetua zor zaie eta». Duela gutxi ikastaro bat bukatu da, eta martxoan beste bat egin nahi dute. Interesa duenak 948-132818 telefonora dei dezake.



**NOSKI JATOR**  
PALEOLITIKOAN

Harri-Itroko  
Komunikatu  
Ofizial bat.

Aurretik gu inguratu gaitu eta eraso bortitzea jasan dugu. Horrela ibili gera, inguratutik, ordu erditz edo... menderatu gaitu izan dugun arte.

Gazte hauek bortizkeria neurgaitza da!



## Nafar Kronika

Mikel Beramendi

### Betikoan gaude

URTE, MENDE ETA MILURTE BERRIAK hasiagatik, betiko zurrunbiloetan sarturik segitzera kondenaturik bizi garela ematen du, gero eta itoago, gero eta nazkatuago, gero eta etsiago. Gizartearen arazoak konpontzen saiatzea omen da politika eta, beraz, politikoen zeregin nagusia. Egunerokoak, ordea, kontrakoak erakusten du. Horretan urte berriak ez du jokamolde berririk ekarri.

Galdetu, bestela, Ansuategiri. Hura duela hogeitau urte bezala edo frankismo garaiko gobernadoreak bezala ariko da, lasai, kezkatu dezakeen inork azalpenik eskatuko ez diolakoan. Ez bakarrik hori, estali eta zurutu ere egiten dute batzuek haren etengabeko jokamolde lotsagarria.

Lehengoan gaude, zurrunbilo berean sarturik. Hitza herriari utzi nahi omen zion ETak orain erritar gehien iritzia ez du entzun nahi, PP-UPNk ez dute hau dena konpontzen hasteko inolako ahaleginik egin nahi, sozialisten egoera negargarria da eta eskutik helduta ibili diren abertzaleen arteko oinarrizko adostasuna desagertzeaz gain, ez dira gai, hitz ederrak eta ametsak alde batera utzita, errealitate bihur litezkeen soluzio zehatzak mahaigaineratzen hasteko. Urte, mende eta milurtekoak hasten badira ere, gu, geureari utsiz, gogor, betiko zurrunbilo nazkagarrian.

#### BERTSOLARIAK

- **Igantzi:** Bortzirietako II. Txapelketaren barnean, gaur, 21:00etan, Bittor Elizagoien, Julen Zelaia eta Alaitz Errekondo Iñigo Olaetxearen, Estitxu Fernandezaren eta Oskar Goñiren aurka lehiatuko dira.
- **Lesaka:** Bortzirietako II. Txapelketaren barnean, bihar, 20:00etan, Saskiberrin, Xabier Xilveira, Manolo Arozena eta Saioa Mitxelena lehiatuko dira aitzineko bi kanporaketetan garaile izan diren artean puntuaziorik baxuena duen taldearen aurka.

#### HITZALDIAK

- **Iruñea:** Gaur, 20:00etan, Erraldien Txokoan, Joseba Egibar bidaiariak *Pastioa* izeneko diapositiba emanaldia eskainiko du bere bidaia eta bizipenak kontatzeko.
- **Iruñea:** Nobela beltza aztertuko du Juan Mari Lezeak astelehenean, 19:30etatik aurrera, Ciudad de Pamplona hotolean. Hizlariak arreta berezia eskainiko die Dashiell Hammet, Raymond Chandler eta J. M. Cain idazle estatu batuarrei.
- **Iruñea:** Tomas Yerrok XX. mendearen bukaerako publizitatearen mintzaira izanen du hizpide asteartean, 20:00etan, Iruñeko Kutzaren hitzaldien aretoan.
- **Iruñea:** IPESek antolatuta, ostegunean, 20:00etan, Erraldien Txokoan, *Globalizazioa eta manipulazio ekonomikoa. Seattleko porrota?* mahai-inguru irekia izanen da, Javier Mateo, Angel Alfaro eta Ruben Benarte irakasleekin.

#### ERAKUSKETAK

- **Tafalla:** Asteazkena arte ikusgai daude erakusketa gelan Josefa Garciaeren margolanak.

## gure aukerak

- **Iruñea:** Urtarrila bukatu arte, Nafarroa Kirol Elkartearen, 19:00etatik 21:00etara, Agustin Lojo eta Fernando Villarrealen *Teknika fotografikoa* erakusketa ikus daiteke.
- **Lizarrak:** Gustavo de Maeztu museoan Nicanor Piñole margolariaren omenezko *Un intercambio artístico* erakusketa dago ikusgai hilaren 30 arte.

#### IKASTAROAK

- **Iruñea:** Gaur, 21:00etan,

bukatzen da Alde Zaharreko auzo elkarteko ikastaroetan izena emateko epea: eskulana, yoga eta erlaxazioa, masajea, argazkigintza, txalaparta, marrazketa, areto dantzak, ehoziri-lanak eta antigimnasia. Informazio gehiago 948-212526 telefonon.

- **Iruñea:** Iruñezar euskaltegiak aerobic ikastaroa antolatatu du. Izena emateko deitu 948-210433 telefonora, otsailaren lehena baino lehen.

#### BESTELAKOAK

- **Agoitz:** Solidaroeekin Bat taldeak mendi martxa antolatu du Itoizko inguruetan barrena. Hitzordua igandean da, 09:00etan, Agoizko frontoian.
- **Zangoza:** San Sebastian bezpera dela eta, asteazkenean, 20:00etatik aurrera, Zangozako Gaitariak, musika eskolako Banda Txiki eta Rocamador dantza taldea izanen dira herriko karriketan.



• JOXE LACALLE

### Agur, pinua, agur!

Azken urteotako Gabonik sonatuenak joan zaizkigu. Bukatu da turroiaren garaia, bukatu dira opariak, bukatu dira Olentzero, Santa Klaus eta Errege Magoak. Gabonen itzala oraindik suma daiteke, hala ere, gure artean: neska-mutilen irribarreak eskatutako opariak jaso ondoren; beste batzuen negarrak, aurtan ere ez direlako ailegatu tren elektrikoa eta Barbie dantzaria; Guraso Magoen kreditu txarteletan darian kea, hamar mila aldiz makinatik pasatu ondoren... Eta pinuak, urtarrilaren 7az geroztik herri eta hirietako edukiontzietan utzitako pinuak, alegia. Urtero bezala, adarren artean oraindik apaingarrien arrastoak dituztela atera dituzte etxeko berotasunetik, euren bizitza laburra auskalo non bukatzeko.

Agur, pinua, agur!